



GIZARTE EKIMENEZKO IKASTETXEETAKO BENETAKO EGOERAZ STEE-EILAS-en ARGIBIDEAK

KE-k idazki berri bat bidali du ikastetxeetara sindikatuek "egia desitxuratu eta egoeraren errealitatea aldatu nahi izatea" leporatuz. Hori dela eta STEE-EILASek zera argitu nahi du:

1.- Negoziazio batasuna ez zen nolanahi hautsi. Uztailaren 5-ean, KE eta AICE izan ziren- alde zuzenetik erabakitako estrategia jarraituz- negoziazioa hautsi zutenak. Han bertan adierazi zuten – aldebakarreko erabaki izanik-uztailaren 8tik aurrera Estatuko hitzarmena ezarriko zutela.

2.- Hain zuzen, KE eta AICE izan dira sektoreko hitzarmena hautsi eta estatu mailakoa ezartzeko urratsa eman duten EAEko patronal bakarrak.

3.- KE-k aski ondo daki erabakiak badituela zalantza juridikoak eta baita behin betiko ebazpenak luze joko duela ere. Epaitegiek arrazoia emango ez baliete ere (sindikatu guztien aholkulari juridikoek uste dute, lan erreformaren arabera, gizarte ekimenezko ikastetxeen hitzarmena indarrean dagoela) erabakiak arnasa hartzeko eta, oraingoz, Epaitegi Gorenaren epaia saihesteko baliagarria zaio.

4.- Ez da egia jasotzen genituen soldatak (murriztuak eta Epaitegi Gorenak ilegaltzat jo zituenak) mantenduko direnik. Onartzen dute dedikazio-osagarria kendu digutela . Irasleei dagokienez " kantitate txiki" hau aurreko murrizketei gehitzen zaio % 0,5-eko murrizketa berria da. Hala ere, ezkututzen dute Haur Hezkuntzako 1.go mailako TEJI lan-maila duten langileei 800 €-ko galera suposatzen diela- % soldataren %3,6 – murrizketa guztien ondorioz % 8,3 txikiago dute soldata. EAEko hitzarmenean gutxien kobratzen zutenei murrizketa itzelenaz ezarriko diete.

5.- Irakasleen urteko lanaldiaren hobekuntza anekdotikoa da; ikastetxe askotan "de fakto" hori baino lanaldi txikiagoa zegoelako. Baina ez dute aipatzen hitzarmen berriak aukera ematen duela asteko eskola-jarduna 25 ordukoa izateko. Bestelako lan-mailei dagokien urteko lanaldia handitu egin da. Lehen Hezkuntzako 1.go zikloko mari-maistren lanaldia 10 orduetan , irakasleak izan gabe AZP langileena 15 orduetan eta Irakasle ez diren tituludunena 50etan. Baina hauek ez dituzte KE-k sekulan aipatzen.

6.- Orain arteko eskola-jarduna mantentzea ez da KE-ren oparia, Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuetan ordainketa eskuordetuaren bidez derrigorrezko mailetako ezartzen diren hezkuntza itunen ondorio zuzena baizik. Legearen arabera KE-k ezin du bestelako eskola-jarduna ezarri eguneko finantziario-maila mantentzen den bitartean. Domina hori ez dagokio

ARABA: Eulogio Serdan, 5 01012 Gasteiz ☎ 945 14 11 04 📠 945 14 43 02 araba@stee-eilas.org

BIZKAIA: Nikolas Alkorta, 3 (Zabalburu) 48003 Bilbao ☎ 944 10 02 98 📠 944 10 13 60 bizkaia@stee-eilas.org

GIPUZKOA: Baso-txiki, 30-34 (atzealdea) 20015 Donostia ☎ 943 46 60 00 📠 943 45 36 27 gipuzkoa@stee-eilas.org

NAFARROA: Descalzos, 72 (lonja) 31001 Iruñea ☎ 948 21 23 55 📠 948 22 97 90 nafarroa@stee-eilas.org



7.- Antza denez, KE amnesia selektibo jota dago hitzarmen berriak orain arte izan ditugun eskubideetan izango dituen ondorioak aipatzen ez ditu eta. Abagunea profitatu du urte luzeetan negoziazio kolektiboaren bidez lortutako eskubideak akabatzeko:

- ✓ 58 urtez gorako irakasleei ukatu egiten zaie bere eskola-jardun murriztea
- ✓ ezinezkoa izango da zati batez ordaindutako baimena hartzea
- ✓ Lan nahiz zerbitzu jakinetarako kontratua edozertarako erabili ahal izango da, prekarietatea areagotuz.
- ✓ Irakasle bati mugagabeko kontratua eginez gero 10 hilabeteko probaldia izango du (ikasturte osoa).
- ✓ Amek astebete galdu dute amatasungatikoa lizentzia dela eta - orain 16 astekoa izango da-. Edoskitzegatikoa baimenak ematen duen metatzeko eskubidea bertan behera geratu da
- ✓ Borondatezko eszedentzietan, lehengo bi urtetan lanpostua gordetzeko eskubidea bertan behera geratu da
- ✓ Jarraitutasun-sariaren ordeko antzinatasun-saria eskuordetuko ordainketako mailetan kobratuko da baldin eta Eusko Jaurlaritzak ordaintzen duen (atea zabaldu da saria desagertu dadin).
- ✓ Ahaidea hil edo gaixotasunen kasuan lurralde historikotik kanpo irten behar genuenean gehitzen zen 2 eguneko baimena desagertzen da (hemendik aurrera 150 km izan behar dira)

KE-k baliorik gabe geratu diren argudio etikoak erabiltzen ditu behin eta berriz, urrutiegi jo du. Sektorean tentsioa areagotzea bere ardura osoa da eta KE-k zabaldutako gatazkaren lan eta gizarte ondorioei aurre egin beharko die. STEE-EILAS-entzat KE maneiatzen dutenek sinesgarritasun osoa galdu dute eta denbora beharko dute berriro eskuratzek.

KE-k borroka luze eta neke baten bitartez lortutako hitzarmena kolpe batez akabatu nahi izan du. Azken 25 urteetan sektoreko langileen aurkako erasorik larriena izan da. Eta horren aurka, bide judiziala ez ezik ezinbestekoa da mobilizazioa sektorean eta ikastetxeetan.

Hezkuntzan STEE-EILAS

ARABA: Eulogio Serdan, 5	01012 Gasteiz	☎ 945 14 11 04	☎ 945 14 43 02	araba@stee-eilas.org
BIZKAIA: Nikolas Alkorta, 3 (Zabalburu)	48003 Bilbao	☎ 944 10 02 98	☎ 944 10 13 60	bizkaia@stee-eilas.org
GIPUZKOA: Baso-txiki, 30-34 (atzealdea)	20015 Donostia	☎ 943 46 60 00	☎ 943 45 36 27	gipuzkoa@stee-eilas.org
NAFARROA: Descalzos, 72 (lonja)	31001 Iruñea	☎ 948 21 23 55	☎ 948 22 97 90	nafarroa@stee-eilas.org